

Euskararekin bat


Otsaila erdialdean jarri zen abian Altzan euskararen normalizazioa lortzeko Plan Estrategikoaren bigarren fasea. Merkataritzan, ostalaritzan, zerbitzuetan eta oro har lan munduan ari diren 43 eragilek euskararen egoera aztertuko dute datozen asteetan.

Sara Soria

Bizi Ra In elkarteak Plan Estrategikoaren berri eman die, otsailetik hona, zerbitzuetan, ostalaritzan,

merkataritzan eta oro har, lan munduan diharduten eragileei. Hilaren 15ean, osteguna, 43 eragilek —merkataritzako 21 eragilek, lan munduko 12k eta zerbitzueta-

ko 10ek— euskararen erabilera Altzan sustatzeko planarekin bat egin zuten. Datozen hilabeteotan, Bizi Ra In-eko kideak eragile horiekin elkartuko dira, bi helburu nagusirekin: bate-tik, arlo bakoitzean euskararen egoera aztertzea, eta bestetik, helburuak zehaztea.



Bizi Ra In elkarteko teknikari Jon Sanchezek esan digunez, "merkataritzako eta ostalaritzako, zerbitzuetan eta lan munduan, oro har, arlo erdialdean dira. Hortaz, arlo horietan guztietan Plan Estrategikoaren behar handia dute. Planaren eragina nabarmena izango da bigarren fase honetan, batez ere merkataritzako eta ostalaritzako euskararen presentzia areagotu dezaketelako katean".

Lehen fasea amaitzean

Plan Estrategikoaren lehenengo faseak ikastetxeak, kultura eta aisialdia, eta kirola izan ditu aztergai. Lehen fase horretan, 47 gizarte eragilek euskararen diagnosian parte hartu zuten eta horietatik, 32 konpromiso zehatzak hartzen ari dira.



KOLDO MITXELENA Kulturunea
Urdaneta, 9
20006 Donostia-San Sebastián
Tf: 943 482 756 Fax 943 482 755
sala@kultura.gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

ARTISTA BERRIEN XL LEHIAKETA
maiatzak 8 - ekainak 21



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

asteartetik larunbata arte
10:30 - 14:00 | 16:00 - 20:30